




# SL-Gi 3003

## Sandratiko balkoia

4,2 Km / 1 h 50 min

**NATURA PARKEETAKO IBILBIDE SAREA**

Gipuzkoako Natura Parke bakoitzak bere ibilbide sarea du. Homologatutako eta ondo seinaleztatutako bide hauen bitartez babesgune bakoitzeko intereseko puntu nagusietara gerturatzeko aukera eskaintzen da. Modu horretan natura baliabideen inguruan ezagutza eta errespetua sustatuz. Gipuzkoako Natura Parke ezberdinak, berriz, DSS2016 GRSAREAren bitartez saretuak daude.

**RED DE SENDEROS DE LOS PARQUES NATURALES**

Cada Parque Natural de Gipuzkoa alberga su propia red de senderos. A través de estos senderos, homologados y bien balizados, se ofrece la oportunidad de aproximarse a los puntos de interés de cada zona protegida. Promoviendo, de este modo, el conocimiento y el respeto por los recursos naturales. Los distintos Parque Naturales de Gipuzkoa, en cambio, están entretejidos a través de la DSS2016 GRSAREA.




## SL-Gi 3003
### Sandratiko balkoia

Gipuzkoan pasabide mitikorik bada, San Adriangoa da (Sandrati) zalantzarik gabe, izan ere, Erdi Aroan bertatik pasatzen zen Gaztela Europarekin lotzen zuen bide nagusia. Diotenez, Espainiako erregeak berak (Karlos I.ak) burua makurtu behar izan zuen bertakoen aurrean. Egun, pasabide honek garai hartan zuen garrantzia estrategikorik ez badu ere, mendian ibilaldi bat egin nahi duenarentzako ezinbesteko tokia da San Adrian.

Si algún pasaje es mítico en Gipuzkoa, ése es el de San Adrián, ya que el camino principal que unía a Castilla con Europa lo cruzaba durante la Edad Media. Dicen que el propio rey de España (Carlos I) tuvo que inclinar la cabeza ante los lugareños. Aunque actualmente no tiene la importancia estratégica que tuvo antaño, San Adrián es un paso obligado para cualquier montañero que se precie.

### Interes puntuak | Puntos de interés

a



SANDRATIKO ATERPETXEA: Mikeleteek, Gipuzkoako Foru Aldundiko garai bateko polizia taldeak, Gipuzkoaren eta Nafarroaren arteko muga zaintzen zuten hemendik eta, bide batez, handik igarotzen ziren merkatariei salgaiak kontrolatzen eta tributuak kobratzen zizkieten. Eraikinak izan dituen erabileren artean, ostatu ere izan zen urte batzuez. Gaur egun, eraikina garai hartako lekuko bihurtu da bere bidean aurkitzen duten mendizaleentzat.

REFUGIO DE SANDRATI: Los Mikeletes, antiguo cuerpo policial de la Diputación Foral de Gipuzkoa, vigilaban la frontera entre Gipuzkoa y Nafarroa desde aquí y, de paso, les controlaban las mercancías y les cobraban los tributos a los comerciantes que pasaban por allí. Entre los usos que ha tenido el edificio, cabe destacar los años en que funcionó como fonda. Hoy en día, el edificio es un testigo de épocas pasadas que los montañeros encuentran en su camino.

b



SANDRATIKO HAITZULOA: San Adrian edo Lizarrate izenez ere ezagutzen den koba hau 1.000 metroko garaieran kokatzen da Aizkorri eta Aratz mendizerren tartean. Sarreratik irteerara 60 metro inguruko luzera du. Kokapenagatik eta egituragatik oso gune estrategikoa izan zen eta, horren erakusgarri da koba honetan egon zen Erdi Aroko gotorlekuaren aztarnak agerian dirautela: omenaldi dorrea, ostatua, ermita, zalditegia eta sutegia.

CUEVA DE SANDRATI: Esta cueva, denominada también San Adrián o Lizarrate, se sitúa a una altitud de 1.000 metros entre las sierras de Aizkorri y Aratz. Desde la entrada hasta la salida tiene una longitud de alrededor de 60 metros. Debido a su situación y a su estructura fue un lugar estratégicamente importante, señal de ello son los restos de la fortaleza medieval que todavía siguen en pie: la torre del homenaje, la posada, la ermita, las caballerizas y la fragua.

c



GALTZADA: Hamaika erromes, bidelapur eta mendizalek leundu dituzte, ibiliaren ibiliaz, ehunka urte dituen erdi aroko galtzada honen harriak. Araba eta Gipuzkoa lotzeko erabili zen bide hau eta, horri jarraiki, Gaztelako erresuma eta Frantzia. Momentu honetan 2,5 kilometro galtzada dira ikusgai. Galtzadaren inguruan hainbat egitura eraiki ziren. 2015 urtean UNESCOk Interes Kulturaleko Ondasun izendatu zuen.

CALZADA: Durante siglos, innumerables peregrinos, salteadores y montañeros han pulido, de tanto caminar, las piedras de este camino medieval. Este camino se usó para unir Araba con Gipuzkoa y por consiguiente el reino de Castilla con Francia. En estos momentos quedan visibles unos 2,5 kilómetros de calzada. Alrededor de la calzada se construyeron numerosas estructuras. El año 2015 UNESCO lo declaró Bien de Interés Cultural.

d



BEHATOKIA: Paisaiaz gozatzeko hainbat talaia natural daude inguru hauetan. Honako hau duzu horietako bat. Bertatik Ultzamako eta Beundako inguruak ikusten dira lehen plano batean, urrutiago Txindoki dago eta, bista gehiago luzatzen bada, Anboto aldean dauden tontorrak ikus daitezke. Kasu honetan, gainera, behatokiko ikuspegiak ikustea bezain ikusgarria da, hara iristeko egin behar den bidea.

MIRADOR: Existen numerosas atalayas naturales en la zona, para disfrutar del paisaje. Ésta es una de ellas. Desde aquí se pueden ver, en un primer plano, los alrededores de Ultzama y Beunda; algo más alejado aparece el Txindoki; y, si miramos más al horizonte, se pueden observar las cimas del entorno del Anboto. En este caso, además, tan asombroso como las vistas desde el mirador, es el camino a recorrer hasta llegar a él.

## MIDE

| Ingurunea<br>Medio | Ibilbidea<br>Itinerario | Desplazamendua<br>Desplazamiento | Ahalegina<br>Esfuerzo | MIDE ordutegia<br>Horario MIDE | + info MIDE<br>www.mide.montanasegura.com |
|---|---|---|---|---|---|
| 2 | 2 | 3 | 2 | 1 h 50 min | |
| **Arrisku-faktore bat baino gehiago dago**<br>Hay más de un factor de riesgo | **Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleztapena**<br>Sendas o señalización que indica la continuidad | **Bide mailakatua edo zoru irregularra**<br>Marcha por sendas escalonadas o terrenos irregulares | **1 eta 3 ordu arteko ibilaldi jarraia**<br>De 1 a 3 horas de marcha efectiva | (( 112 ))<br>SOS DEIAK | |

## Bide-markak
Señalización

| Ibilbidearen jarraipena | Norabide aldaketa | Norabide okerra |
|---|---|---|
| Continuidad de sendero | Cambio de dirección | Dirección errónea |

## + INFO

**Praktika onen dekalogoa**
Decálogo de buenas prácticas

**www.gipuzkoanatura.eus**
**Trackak eskuragarri**
Tracks disponibles

## Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

**Txakurrak beti lotuta eraman.**
Los perros deberán ir atados.

**Saiatu mendira bakarrik ez joaten.**
Intenta no ir nunca solo al monte.

**Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.**
Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.

**Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.**
No abandones ni entierres la basura.

**Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.**
No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.

**Animaliak larratzen**
Animales pastando

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

## Legenda
Leyenda

**Ibilbide hasiera**
Inicio de sendero

**Ikuspegi panoramikoa**
Vista panorámica

**Monolitoa**
Monolito

arazi ideiak borobiltzen

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gipuzkoako Mendizale Federazioa